



Bergarako  
Udala

## **KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUA**

**BERGARAKO UDALAK SUSTATUTAKO HAINBAT  
OBRATAN SEGURTASUNA ETA OSASUNA  
KOORDINATZEKO ZERBITZUA EMATEKO**





# AURKIBIDEA

## I. KAPITULUA. - KONTRATUAREN EDUKIA

- 1. KONTRATUAREN XEDEA**
- 2. EXEKUZIO-EPEA**
- 3. KONTRATUAREN PREZIOA**
- 4. FINANTZAKETA**
- 5. ORDAINTZEKO ERA**
- 6. PREZIOAK BERRIKUSTEA**
- 7. BERMEAK**

## II. KAPITULUA. - KONTRATATZEKO PROZEDURA

- 8. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA MODUA**
- 9. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA**
- 10. PROPOSAMENAK AURKEZTEA**

## III. KAPITULUA.- KONTRATUA GAUZATZEA

- 11. ALDAGAIAK EDO ALTERNATIBAK**
- 12. KONTRATAZIO-MAHAIA**
- 13. AGIRIAK SAILKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA**
- 14. KONTRATUAREN ARDURADUNA**
- 15. KONTRATUA BURUTZEA**
- 16. KONTRATISTAREN LANEKO BETEBEHARRAK**

**17. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA BURUTZERAKOAN  
BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE**

**18. DATU PERTSONALAK**

**19. KONTRATUAREN ALDAKETAK**

**20. HARRERA ETA BERME-EPEA**

**21. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK, BALDINTZAK  
BETETZEN EZ BADITU**

**22. AZPIKONTRATAZIOA**

**23. KONTRATUAREN LAGAPENA (ZESIOA)**

**24. KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEKO ARRAZOIAK**

**25. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK**

**26. HIZKUNTZA-BETEKIZUNAK**

**27. HIZKUNTZA-BALDINTZEN BETETZE-MAILAREN JARRAIKENA**

**28. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK**

**IV. KAPITULUA.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA  
JURISDIKZIO ESKUDUNA**

**29. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA**

**30. JURISDIKZIO ESKUDUNA**



## **KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUA: BERGARAKO UDALAK SUSTATUTAKO HAINBAT OBRATAN SEGURTASUNA ETA OSASUNA KOORDINATZEKO ZERBITZUA EMATEKO**

### **I. KAPITULUA. - KONTRATUAREN EDUKIA**

#### **1. KONTRATUAREN XEDEA**

Plegu honen arabera egingo den kontratuaren xedea da “BERGARAKO UDALAK SUSTATUTAKO HAINBAT OBRATAN SEGURTASUNA ETA OSASUNA KOORDINATZEKO ZERBITZUA” ematea, betiere plegu honetan eta Baldintza Teknikoen Pleguan zehaztutako baldintzetan eta adjudikazio-hartzaile izango denaren eskaintzan jasotakoetan.

CPV kode nagusia: 71520000-9. Obrak ikuskatzeko zerbitzua / Servicio de supervisión de obras.

#### **2. EXEKUZIO-EPEA**

Zerbitzua emateko exekuzio-epea urtebete batekoa (1) izango da, kontratua sinatzen den datatik kontatzen hasita. Nolanahi ere, Bergarako Udalak urtero luzatu ahal izango du aipatutako kontratua, gehienez ere 4 urtez. Kontratu-baldintzak kontratuaren lehen urterako ezarritakoak izango dira. Erabaki hori Udalak hartu beharko du, kontratuaren bukaera-data baino bi hilabete aurretik.

Aurreko epeei dagokienez gerta daitezkeen aldaketek ez dute inolako aldaketarik eragingo kontratuaren prezioari buruz.

Kontrataturako enpresa berandutze-egoeran egongo da epe hori igaroz gero, eta administrazioaren aldetik ez da beharrezkoa izango aurrez ohartaraztea.

Aurreko paragrafoetan ezarritakoa horrela izanda ere, kontratua amaitu ondoren zerbitzua ematen jarraituko dela bermatuko lukeen kontratu berria formalizatu ez bada adjudikazio-prozedura berrian kontratacio-organoak aurreikusi ezineko gertaeren ondorioz, eta zerbitzua ez eteteko interes publikoko arrazoiak badaude, kontratu hau luzatu ahal izango da kontratu berria gauzatzen hasten den arte, betiere gehienez bederatzi hilabetez, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe, eta baldin eta kontratu berriaren litzitazio-iragarkia argitaratua izan bada kontratu honen bukaera-data baino gutxienez hiru hilabete lehenago.

### **3. KONTRATUAREN PREZIOA**

Kontratuaren gehieneko aurrekontu estimatua, lehen urterako, 7.438,02 eurokoa da BEZ gabe (9.000 euro BEZ barne), nahiz eta ez den bermatzen diru-kopuru horretarainoko zerbitzua eman behar izango denik; eta adjudikazioa egingo da eskainitako prezio unitarioen arabera.

#### **Lizitazioko aurrekontu-oinarria:**

- Zuzeneko kostuak:

Langileen kostuak 5.838,02 €

- Zeharkako kostuak: 1.100 €

- Etekin industriala: 500 €

Horrenbestez, lizitazioko aurrekontu-oinarria hau da:

- Lizitazioko oinarria edo prezioa (BEZ gabe): 7.438,02 €

- BEZ (% 21): 2.561,98 €

- Guztira: **9.000,00 €**

Ezin dira zehatz mehatz definitu zer nolako beharrak izango dituen Udalak kontratu honen iraupenean zehar. Zerbitzu hau beharrezkoa egiten duten arrazoiak ez daude Udalaren borondatearen menpe soilik, eta ez dira guztiz aurreikusteko modukoak ere. Horrenbestez, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 33. Xedapen Gehigarriaren arabera, gehieneko aurrekontu bat zehazten da. Udalak bakarrik ordainduko ditu benetan egindako zerbitzuak.

Kontratuaren osotasuneko balio estimatua, luzapenak eta aldaketak barne –horrelakorik balego– 35.702,48 eurokoa da (8.925,62 € x 4), BEZ kanpo.

Honako prezio unitario hauek ezartzen dira, BEZ barne, eta enpresa lizitatzailen preziook aurkezteko orduan eskaintza-aurkezpeneko ereduari jarraitu beharko dio.

#### **LIZITAZIO-LANSARIAK (BEZ BARNE)**

	<b>KONTRATA BIDEZKO EXEKUZIO-AURREKONTUA</b>	<b>OBREN IRAUPENAREN ARABERAKO LANSARIAK</b>
<b>1. taldea</b>	100.000 euro arte	370 €/hilabetea <sup>(1)</sup> (BEZ BARNE)
<b>2. taldea</b>	100.001 eurotik aurrera	530 €/hilabetea <sup>(2)</sup> (BEZ BARNE)

*(1) Koordinatzailen hilean gutxienez lau bisitaldi egin behar du obrara.*

*(2) Koordinatzailen hilean gutxienez sei bisitaldi egin behar du obrara.*



Behin kontratua adjudikatu eta gero, ulertuko da prezioan sartuta daudela zerbitzua ematearen ondorioz sortzen diren gastu eta zerga guztiak.

#### 4. FINANTZAKETA

Aurrekontuan nahikoa kreditu dago, kontratua betetzeagatik Udalak izango dituen betebeharrei aurre egiteko behar bestekoa. Lizitazioa finantzatzeko partida hau da: 0600.227.151.00.99 (BK 582) RCT 16/2020.

Bestalde, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko ditu aurrekontu gaietan eskumena duen organoak.

#### 5. ORDAINTZEKO ERA

Benetan emandako zerbitzuak ordaintzeko, aldizkako ziurtapenen bidez egingo da, hilabeterokoak, enpresa adjudikazio-hartzaileak eginak, aldi horretan adjudikatutako eta emandako zerbitzu zehatzen arabera; eta ziurtagiri hori obra bakoitzeko ardura duen udal teknikariak gainbegiratu eta kontrastatuko du eta, hala badagokio, organo eskudunak onartuko du.

Fakturak onartu ondoren, ordaindu egingo dira Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2007 Legearen 198. artikuluan aurreikusitako legezko epeetan.

Enpresa kontratistak faktura(k) formatu elektronikoan aurkeztuko d(it)u, Gipuzkoako Fakturen Sarrera Puntu Orokorraren bidez (FSPOe) (<https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua>), Udal Aurrekontuaren Exekuzio Arauan xedatutakoaren arabera, 25/2013 Legea betez (25/2013 Legea, abenduaren 27koa, Sektore Publikoan faktura elektronikoa bultzatu eta fakturen kontularitzako erregistroa sortzen duena).

Unitate organikoen DIR3 kodeak:

Bergarako Udala:

- Organo Kudeatzailea: EL01200744
- Unitate izapidetzailea: EL01200744
- Kontabilitateko bulegoa: EL01200744

#### 6. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, ez dagokio prezio-berrikuspenik.

## **7. BERMEA**

Behin-behineko bermea:

Ez da eskatzen.

Behin betiko bermea:

Kontratuaren adjudikazio-hartzaleak, bere gain hartutako betebeharak beteko direla bermatzeko, behin betiko berme bat ezarri beharko du, BEZ kanpoko adjudikazio-zenbatekoaren % 5aren pareko zenbatekoarekin. Lizitazio honetan ezin denez kopuru hori zehaztu, enpresa adjudikazio-hartzaleak 1.000 euroko bermea ezarri beharko duela balioetsi da.

Kontrata hartu duen enpresa adjudikazio-hartzailaren proposamen ekonomikoa hasiera batean ez-normaltzat edo neurriz kanpokotzat jo bada baina gero onartu bada, aurreko bermeaz gain berme osagarri bat ezarri beharko du, adjudikazio-zenbatekoaren % 5ekoa; hortaz, bermea guztira kontratuaren prezioaren % 10ekoa izango da.

Berme hori hamar egun balioduneko epean ezarri beharko da –eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaleak errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera–, eta ezarri ahal izango da 9/2017 Legeak (azaroaren 8ko, Sektore Publikoko Kontratuena) 108. artikuluan zehaztutako edozein bide erabilita, salbu eta eskudirutan ezarritakoak –horiek Bergarako Udalaren edozein kontu korrontetan sartu beharko baitira–.

Berme-epena amaitutakoan, eta enpresa adjudikazio-hartzaleak kontratuko betebehar guztiak bete baditu, bermea itzuliko zaio –osorik edo, bidezkoa bada, zati batean–, betiere aipatutako Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 111. artikuluan xedatutakoaren arabera.

## **II. KAPITULUA. - KONTRATATZEKO PROZEDURA**

### **8. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA MODUA**

Kontratu hau adjudikatuko da PROZEDURA IREKIAREN bidez, eta irizpide-aniztasunez, kalitate-prezio erlazio onenaren arabera.

Prozedura ireki honen adjudikazioa egiteko, honako irizpide hauek hartuko dira oinarritzat:



### Eskaintzak baloratzeko irizpideak

#### FORMULAZ KUANTIFIKATU EZINEKO IRIZPIDEAK ( 40 puntu )

##### MEMORIA TEKNIKOA: 30 puntu

- 1.- Lanak burutzeko metodologia: 10 puntu.
- 2.- Teknikariak; kontraturako izendatutako langileen curriculuma, plegu hauetako 13. artikuluan ezarritakoaren arabera: 10 puntu.
- 3.- Kontratuari esleitutako baliabide tekniko eta materialak: 10 puntu.

##### HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK: 10 puntu

Bakarrik baloratuko dira pleguaren gutxieneko baldintzei buruzko hobekuntza-proposamenak, eta betiere kontratuaren xedeari zuzen-zuzenean lotuta daudenean.

Hobekuntza bezala aurkeztutakoak ez dira baloratuko baldin eta pleguan bertan jasotakoaren arabera nahitaez bete beharreko kontzeptuak badira.

#### FORMULAZ KUANTIFIKATZEKO MODUKO IRIZPIDEAK (50 puntu)

Lizitazio-lansarien bi talde hauek zehazten dira:

##### LIZITAZIO-LANSARIAK (BEZ BARNE)

	KONTRATA BIDEZKO EXEKUZIO-AURREKONTUA	OBREN IRAUPENAREN ARABERAKO LANSARIAK
1. Taldea	100.000 euro arte	370 €/hilabetea <small>(1)</small> (BEZ BARNE)
2. Taldea	100.001 eurotik aurrera	530 €/hilabetea <small>(2)</small> (BEZ BARNE)

(1) Koordinatzaileak hilean gutxienez lau bisitaldi egin behar du obrara.

(2) Koordinatzaileak hilean gutxienez sei bisitaldi egin behar du obrara.


Irizpide horien arabera, talde bakoitzari gehienez ere 25 puntu emango zaio.

a. Fase honetan, automatikoki baloratu daitezkeen irizpideak (prezioa) balioetsiko dira, honako formula hauek aplikatuta:

- "Bi" berdina edo txikiagoa bada A1 baino,  $P_i = 20 \times B_i / A_1$
- "Bi" handiagoa bada A1 baino, eta berdina edo txikiagoa A2 baino,  $P_i = 20 + 2 \times (B_i - A_1) / (A_2 - A_1)$
- "Bi" handiagoa bada A2 baino,  $P_i = 20 + 5 \times (B_i - A_2) / (B_{max} - A_2)$

Non:

- a.  $P_i$ : "i" zenbakidun eskaintzaren puntuazioa
- b.  $B_i$ : "i" zenbakidun eskaintzaren baja, portzentaje-unitateetan, lizitazio-aurrekontuarekiko (adib. baja % 10ekoa bada,  $B_i = 10$ )
- c.  $B_{max}$ : gehieneko baja, portzentaje-unitateetan
- d.  $A_1: 0.25 \times B_{med}$
- e.  $A_2: 0.50 \times B_{med}$
- f.  $B_{med}$ : onartutako eskaintzek egin duten batez besteko baja, portzentaje-unitateetan, lizitazio-aurrekontuarekiko.



## 9. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Kontratacio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute pertsona naturalek edo pertsona juridikoek baldin eta gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa badute, beren ekonomi eta finantza-kaudimena eta gaitasun tekniko edo profesionala egiaztatzen badituzte, eta azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuaren 9/2017 Legearen 71. artikuluan zehazten diren kontratatzeko debekuetakoren bat ere ez badute. Kaudimena egiaztatzeko eta ebaluatzea, baldintza honetan bertan ezarritako bideak erabiliko dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez jardun ahal izango dute. Ordezkarien kasuan, berariaz emandako ahalorde asketsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten izenean horko kide bat datorrenean, agiri bidez justifikatu beharko du horretarako ahalmena duela. Bi kasuetan ere, kontratatzeko gaitasun-eza dakarten arrazoia, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Enpresa lizitatzailak, gainera, kontratu honen helburuarekin lotura zuzena duten jarduerak egiteko xedea izan beharko du, eta baita kontratua behar bezala burutzeko adinako giza- eta material-baliabideez hornitutako antolamendua ere.

## 10. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitazioan parte hartzeko proposamenak Bergarako Udaletxeko Erregistro Orokorean aurkeztuko dira 15 egun naturaleko epean, iragarkia Bergarako Udaleko Kontratatzailaren Profilean argitaratzen den egunaren bihamunetik kontatzen hasita, astelehenetik ostiralera, goizez, 09:00etatik 13:00etara bitartean.

Epe-bukaerako eguna larunbat, igande edo jaiegun suertatuz gero, hurrengo laneguneko 13:00ak arte luzatuta gelditzen da.

Proposamenak, era alternatiboan, korreoz ere aurkeztu ahal izango dira edo baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Ertzidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako edozein bide ere erabiliz.

Proposamenak posta bidez bidaltzen badira, enpresariak egiaztatu egin beharko du zein egunetan sartu duen bidalketa postetxean eta, horretaz gain, egun berean fax bidez (943 77 91 63 zenbakian) edo posta elektronikoaren bidez ([kontratazioa@bergara.eus](mailto:kontratazioa@bergara.eus)) Kontratacio Organoa jakinarazi beharko dio eskaintza bidali duela, eta honako datuak adieraziko dira: expedientearen zenbakia, kontratu-xedearen izendapen osoa, eta lizitatzailaren izena.

Fax edo mezu elektroniko hori jaso izanaren egiazapena Udal Idazkariaren diligentziaren bidez egingo da. Lizitazio-iragarkian zehaztutako epea bukatzeko eguna eta gero Kontratacio Organoa jasotako proposamenik ez da onartuko bi baldintza horiek betetzen ez badira. Dena den, epe amaierako datatik hurrengo bost egunetan ez bada dokumentaziorik jaso, jada ez da onartuko.

Ezkuokoak izango dira proposamenak, eta horiek aurkezteak esan nahi du baldintzarik gabe onartzen duela lizitatzaleak plegu honetan aurreikusitako guztia.

Lizitatzaleek ezin izango dute aurkeztu aldagairik edo alternatibarik, baina bai aurkeztu ditzakete bidezkotzat jotako hobekuntzak.

Proposamenak kartazal itxi batean aurkeztuko dituzte ondorengo idazpen honekin:

**“BERGARAKO UDALAK SUSTATUTAKO HAINBAT OBRETAN SEGURTASUNA ETA OSASUNA KOORDINATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA”**

Gutun-azal horren barruan A, B eta C kartazalak sartuko dira.

"A" kartazalean, "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA" izenburupean, ondorengo dokumentu hauek sartuko dira:

a) Europako Kontratacio Dokumentu Bakarra (DEUC). DEUCen formulario normalizatua helbide elektroniko honetan eskura daiteke: <https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es>.

Halaber, udalaren Kontratatzalearen Profilean XML formatua eskura daiteke, lizitatzaleek DEUC betetzeko importatu ahal izateko.

b) Aldi Baterako Enpresaburuen Elkarte bat eratzeko konpromisoa (ABEE), hala dagokionean. Bi enpresa edo gehiago lizitazio batera joaten badira ABEE moduan eratzeko konpromisoarekin, deklarazio bat gehitu beharko da adieraziz hori izenpetzen duten enpresaburuen izenak eta inguruabarrak, bakoitzaren partaidetza zein den, eta, esleipendun ateraz gero, konpromisoa hartzen dutela formalki Aldi Baterako Elkarte bat eratzeko. Agiri hori elkartea osatzen duten enpresa guztien ordezkariek sinatu beharko dute. Horrelakoetan, enpresa bakoitzak bere DEUC aurkeztu beharko du.

c) Atzerriko enpresen deklarazioa. Atzerriko enpresek deklarazio bat aurkeztu beharko dute adieraziz Espaniako arlo guztieta epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztiatarako, eta, hala dagokionean, uko egiten diotela lizitatzaleari legokiokeen atzerriko jurisdikzio foruari.

d) Posta elektronikoko helbide bat errekerimenduak edo eskaerak egiteko, datuak argitzeko, dokumentazio osagarria emateko edo akats konpongarriak daudela jakinarazteko.

"B" kartazalean, "MEMORIA TEKNIKOA" izenburupean, honako alderdi hauek garatuko dira:

Proiektuaren edukia aztertzea.



### Eskaintzak baloratzeko irizpideak

#### FORMULAZ KUANTIFIKATU EZINEKO IRIZPIDEAK (40 puntu)

##### MEMORIA TEKNIKOA: 30 puntu

- 1.- Lanak burutzeko metodologia: 10 puntu.
- 2.- Teknikariak; kontraturako izendatutako langileen curriculuma, plegu hauetako 13. artikuluan ezarritakoaren arabera: 10 puntu.
- 3.- Kontratuari esleitutako baliabide tekniko eta materialak: 10 puntu.

##### HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK: 10 puntu

Bakarrik baloratuko dira pleguaren gutxieneko baldintzei buruzko hobekuntza-proposamenak, eta betiere kontratuaren xedeari zuzen-zuzenean lotuta daudenean.

Hobekuntza bezala aurkeztutakoak ez dira baloratuko baldin eta pleguan bertan jasotakoaren arabera nahitaez bete beharreko kontzeptuak badira.

"C" gutun-azala, "ESKAINTZA EKONOMIKOA" azpititulua duena, ondoren ezarritako ereduaren arabera formulatuko da.

#### FORMULAREN BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK (50 puntu)

Lizitazio-lansarien bi talde hauek zehazten dira:

##### LIZITAZIO-LANSARIAK (BEZ BARNE)

	KONTRATA BIDEZKO EXEKUZIO-AURREKONTUA	OBREN IRAUPENAREN ARABERAKO LANSARIAK
1. Taldea	100.000 euro arte	370 €/hilabetea <small>(1)</small> (BEZ BARNE)
2. Taldea	100.001 eurotik aurrera	530 €/hilabetea <small>(2)</small> (BEZ BARNE)

(1) Koordinatzaileak hilean gutxienez lau bisitaldi egin behar du obrara.

(2) Koordinatzaileak hilean gutxienez sei bisitaldi egin behar du obrara.


Irizpide horien arabera, talde bakoitzari gehienez ere 25 puntu emango zaio.

a. Fase honetan, automatikoki baloratu daitezkeen irizpideak ( prezioa) balioetsiko dira, honako formula hauek aplikatuta:

- "Bi" berdina edo txikiagoa bada A1 baino,  $P_i = 20 \times Bi / A_1$
- "Bi" handiagoa bada A1 baino, eta berdina edo txikiagoa A2 baino,  $P_i = 20 + 2 \times (Bi - A_1) / (A_2 - A_1)$
- "Bi" handiagoa bada A2 baino,  $P_i = 20 + 5 \times (Bi - A_2) / (B_{max} - A_2)$

Non:

- a.  $P_i$ : "i" zenbakidun eskaintzaren puntuazioa
- b.  $Bi$ : "i" zenbakidun eskaintzaren baja, portzentaje-unitateetan, lizitazio-aurrekontuarekiko (adib. baja % 10ekoa bada,  $Bi = 10$ )
- c.  $B_{max}$ : gehieneko baja, portzentaje-unitateetan
- d.  $A_1: 0.25 \times B_{med}$
- e.  $A_2: 0.50 \times B_{med}$
- f.  $B_{med}$ : onartutako eskaintzek egin duten batez besteko baja, portzentaje-unitateetan, lizitazio-aurrekontuarekiko.





## **11. ALDAGAIAK EDO ALTERNATIBAK**

Ez da onartzen.

## **12. KONTRATAZIO-MAHAIA**

Kontratazio-mahaia honako hauek osatuko dute:

PRESIDENTEA:

- Bergarako Udaleko alkate-lehendakaria, edo hark eskuordetuko duena.

MAHAIKIDEAK:

- Kontu-hartzalea, edo hark eskuordetuko duena.
- Udaleko idazkaria edo berak eskuordetzen duena.
- Bergarako Udaleko kontratazio-teknikariak edo hark eskuordetzen duenak egingo ditu kontratazio-mahaiko idazkaritza-lanak.

Mahaiaren bileran parte hartu ahal izango dute, aholkularitza-eginkizunetarako, Mahaiak eskatutako udal teknikari arduradun guztiekin. Mahaiak, halaber, bidezko iritzitako txosten tekniko guztiak ere eskatu ahal izango ditu.

## **13. AGIRIAK SAILKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA**

Proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan honako jarduketa hauek egingo dira:

### **1. "A" KARTAZALA IREKITZEA ETA BARRUAN DARAMAN DOKUMENTAZIOA KALIFIKATZEA**

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, Kontratazio Mahaiak A kartazala irekiko du, eta dokumentuak badaudela egiaztatuko du; bestela, konpontzeko izapidea egingo du. Mahaiak, aurkeztutako agiriak kalifikatu ondoren eta, hala badagokio, antzemandako akatsak edo ez-eginak zuzendutakoan, zehatztuko du zein diren aukeraketa irizpideei egokitzen zaizkien enpresak eta berariaz adieraziko du nortzuk onartu dituen lizitazioan, nortzuk geratu diren kanpoan eta zergatik geratu diren kanpoan.

### **2. "B" KARTAZALA JENDAURREAN IREKITZEA**

"B" gutun-azala proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo osteguneko 10:15ean irekiko da, salbu eta lizitatzailerentzat batek proposamena postaz bidali badu. Bateren bat postaz bidali dela eta irekiera ostegunean egin ezin bada, gutun-azalak hurrengo ostegunean irekiko dira, salbu eta aldez aurretik kontratatzairen profilean beste datarik zehaztu bada.

Hasierako deialdi honen mantentzea edo, kasu, aldaketak argitara emango dira kontratatzairearen profilean ([www.bergara.eus](http://www.bergara.eus)), baina jakinarazpenetarako egoki jotzen den beste edozein bide ere erabili ahal izango da.

Egintza horretan berariazko adierazpena egingo da mahaik proposamenei emandako kalifikazioari buruz eta lizitaziora onartu direnak identifikatuko dira, baita baztertu direnak ere, eta kasu horretan baztertzeko arrazoiak azalduko dira.

### **3. “C” KARTAZALA JENDAURREAN IREKITZEA**

“B” kartazala ireki eta barruko dokumentazioa baloratu ondoren, “C” kartazala irekiko da jendaurrean, Kontratatzairearen Profilean adierazitako egun eta orduan ([www.bergara.eus](http://www.bergara.eus)).

“C” kartazala ireki baino lehen, eskaintza bakotzean balio-irizpide baten menpe dauden irizpideei eman zaien balorazioa jakinaraziko da.

### **4. ESKAINTZAK SAILKATZEA**

Behin irizpide guztiak baloratu ondoren, aurkeztutako proposamenak Mahaik sailkatu egingo ditu (puntuazio handienekotik gutxienekora) eta kontratua adjudikatzeko proposamena bideratuko du, gieienez ere 2 hilabeteko epean.

### **5. LEHEN SAILKATUARI ERREKERIMENDUA EGITEA**

Lehenagoko ekintzak egin eta gero eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari Alkatetzatik eskatuko zaio ondoren adierazten den dokumentazioa entregar dezala hamar laneguneko epean, errekerimendua jaso duen egunaren biharamunetik hasita:

Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena ENPRESA ADJUDIKAZIO-HARTZAILEAK SOILIK egiaztatuko du, honako agiri hauek aurkeztuz:

1.a) Enpresariaren nortasun juridikoa egiaztatzeko dokumentuak eta, hala badagokio, haren ordez jarduteko egiaztagiriak.

Nortasuna egiaztatuko da hauek aurkeztuz:

- Lizitatzaileak bere izanean badihardu, Nortasun Agiri Nazionala.
- Beste pertsona edo erakunde baten izanean badihardu, NAN nortasun-agiria eta ahalorde-eskritura. Agiriak kalifikatzeko egintzan, ofizioz, ahalordetza askietsiko da.
- Lizitatzailea pertsona juridikoa bada: eratze edo aldaketa eskritura, hala dagokionean, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribaturik eta identifikazio fiskaleko zenbakia (inskribapena aplikaziozkoa zaion merkataritza legeriarekin bat etorri eskatu ahal denean). Hala

ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du, jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribatuta egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak. Enpresariak espanyiarak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, nahikoa izango da lanbide-edo merkataritza-erregistroren batean inskribatuta daudela egiaztatzea, dagokion estatuko legediak betekizun hori eskatzen baldin badu.

- Hairbat enpresak lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa-batasuna eratuz, taldekie bakoitza bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Adjudikazioa lortuz gero, AEB (Aldi baterako Enpresa Batasuna) formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiak. Bestalde, aldi baterako enpresa-elkarteko kide bakoitza kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenean, kide bakotzaren kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

1.b) Erantzukizunpeko berariazko aitorpena aurkeztu behar du, 9/2017 Legearen (azaroaren 8ko, Sektore Publikoko Kontratuena) 71. artikuluan aipatzen diren kontratatzeko debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko.

1.c) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharra eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituela eta horietan egunean dagoela.

1.d) Kaudimen ekonomikoa eta finantzaketakoa kreditatzen du(t)en dokumentua edo dokumentuak. Honela egiaztatu beharko da:

- Enpresariaren aitorpena, non jasoko den urteko negozio-bolumena, betiere kontratuari dagokion alorrean eta azken hiru urteen artean ekitaldi onena hartuta, eta zenbatekoa izanda kontratuaren urteko balio estimatuaren % 150aren parekoa edo hortik gorakoa.

1.e) Gaitasun tekniko edo profesionala egiaztatzea. Agiri hauek aurkeztuz egiaztatu behar dute:

a) Kontratu-xedearen izaera bereko edo antzekoak izanik, gehienez azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusienen zerrenda aurkeztu beharko du; zerrenda horretan adierazi beharko dira zerbitzu edo lan horien zenbatekoa, data eta hartzalea –publikoa zein pribatua–. Gutxienez, fakturazio hau egiaztatu beharko da: 9.000 euro.

Egindako zerbitzuak edo lanak egiazatzeko, hartzalea sektore publikoko entitatea izan denean organo eskudunak emandako edo zigilatutako ziurtagiriak aurkeztu beharko dira; hartzalea subjektu pribatua izan denean, berriz, hark emandako ziurtagiria aurkeztuko da edo, hori ezinezkoa denean, enpresariaren aitorpen bat, eta horrekin batera enpresariak berak dituen eta prestazioa eman dela egiaztatu dezaketen dokumentuak ere; horrela badagokio, ziurtagiri hauek eskudun agintaritzak zuzenean jakinaraziko dizkio kontratacio-organoari.

b) Enpresaburu eta enpresako zuzendaritzako langileen titulazio akademiko eta profesionalak, eta bereziki kontratua gauzatzeko ardura duten langileen titulazioak.

Bergarako Udalak sustatutako obretako segurtasuna eta osasuna koordinatzeko lanen arduraduna taldeko koordinatzailea izango da, eta arkitekto teknikoari edo antzekoari dagokion titulazioa izan beharko du. Kontratu honetako enpresa adjudikazio-hartzaleak, obra bakoitza hasi baino lehen, jakinarazi egin beharko ditu segurtasun eta osasuneko koordinazioaz arduratuko den teknikari adituaren datuak. Obrak irauten duen artean teknikari adituaren edozein aldaketaren aurrean, aldaketa horrek Bergarako Udalaren oniritzia beharko du.

Bergarako Udalak edozein momentutan erabaki ahal izango du enpresa adjudikazio-hartzaleak proposatutako segurtasun eta osasuneko koordinazioko teknikari arduraduna aldatzea.

1f) Behin betiko bermea ezartzea (1.000 euro) eta, halakorik beharko balitz, baita berme osagarria ere.

1g) Erantzukizun zibileko aseguruaren polizaren eta ordainagiriaren kopia aurkeztea (600.000 euro).

1h) Kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa adieraztea.

1i) Egin beharreko azpikontratuaren zerrenda aurkeztu, eta azpikontratista bakoitzak egin beharreko zatiak adierazi.

1j) Zerbitzua emango duten pertsonek eskatutako hizkuntza-gaitasuna dutela egiaztatu beharko du enpresak.

Hizkuntza-gaitasuna honela egiaztatu ahal izango da:

- Zerbitzua eman behar duen pertsonak edo pertsonek eskatutako hizkuntza-gaitasuna dutela egiaztatzen duen agiria aurkeztea, edo
- Bergarako Udalak erabakitako proba egitea.

1k) Materialak edo osagaiak fabrikatzen dituzten sozietateekiko eta enpresa sustatzaile, eraikitzale edo instalatzaileekiko erabateko independentzia juridiko eta ekonomikoari buruzko berariazko ziurtagiria edo adierazpena.

1l) artikulua. 39/97 Errege Dekretuaren 17. artikuluaren arabera, kanpoko prebentzio-zerbitzu gisa akreditatuta dauden erakundeek ezin dute itunpeko enpresekin inolako loturarik izan, ez merkataritza-, finantza- edo bestelako loturarik, ez eta kanpoko prebentzio-zerbitzu gisa jarduten duten bestelako loturarik ere, independentziari eta jardueren emaitzari eragin diezaiokenik.

39/97 Errege Dekretua betetzen dela bermatzeko, lehiaketa honetara eskaintza aurkezten duen enpresa orok (kanpoko prebentzio-zerbitzu izan edo ez) erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, eta, bertan, esleipendun izanez gero, expediente honekin lotutako obretan Bergarako Udalaren beste edozein kontrataziotan aurkezteari berariaz uko egiten diola adierazi beharko du, edo obra-kontratazio horietara aurkezten diren obra-enpresa kontratistetatik kanpoko

prebentzio-zerbitzuak emateari uko egiten diola, baldin eta Segurtasun- eta Osasun-koordinazio hori behar bada.

1.m) Atzerriko enpresak badira, Spainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta hala badagokio lizitatzailari egokitutako atzerriko foru jurisdikzionalari uko egingo diotela.

\* Dokumentazio guztia jatorrizkoa izango da edo behar bezala konpultsatutako kopia.

Aurreko hamar eguneko epea bukatu eta hurrengo bost egun baliodunetan egingo da adjudikazioa, betiere lizitatzailak adierazi zaizkion dokumentuak aurkeztu baditu eta behin betiko bermea jarri badu.

Kontratua eskaintzarik onena aurkeztu duen enpresa lizitatzailari adjudikatzen ez bazaio, horretarako beharrezko baldintzak betetzen ez dituelako, Administrazioak, beste deialdi bat egin aurretik, beste errekerimendu bat egin ahal izango dio haren ondorengo enpresa lizitatzailari edo lizitatzailееi, betiere eskaintzak sailkatu diren hurrenkeraren arabera (gaitasuna egiaztatu ez duen enpresa ezabatu ondoren); kasu horretan, beste enpresari hamar egun balioduneko epea emango zaio aurretik adierazitakoa betetzeko.

Adjudikazioa gehienez ere hiru hilabeteko epean egingo da –proposamenak ireki eta hurrengo egunetik kontatzen hasita–.

Kontratua dokumentu administratiboan formalizatuko da, adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta gehienez ere hurrengo hamabost egun balioduneko epean.

### **III. KAPITULUA.- KONTRATUA GAUZATZEA**

#### **14. KONTRATUAREN ARDURADUNA**

Kontratua adjudikatzeko erabakian, udal teknikari bat kontratuaren exekuzioaren arduradun izendatuko da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 62. artikuluan aurreikusitako eginkizunak izango dituena.

#### **15. KONTRATUA BURUTZEA**

Kontratu-hartzailearen arriskuz eta zoriz egingo da kontratua.

Zerbitzuak egiterakoan, agiri honetan dauden baldintzak bete beharko dira, bai eta expedienteari erantsitako xehetasun teknikoak ere, halakorik egonez gero. Kontratua Administrazioaren

zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratu-hartzaileari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

## **16. KONTRATISTAREN LANEKO BETEBEHARRAK**

Kontratu honen xede diren zerbitzuetan kontratatutako langileei dagokienez, kontratu-hartzaileak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Enpresa adjudikazio-hartzaileak, kontratua sinatu aurretik, kontratuaren xede den jarduera egingo duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa adierazi beharko du.

Kontratua gauzatzen den bitartean, kontratatutako enpresak hitzarmen kolektibo aplikagarrian jasotzen den lansaria ordaindu beharko dio langile bakoitzari dagokion kategoria profesionalaren arabera, eta ordaindu beharreko lansaria inola ere ez da hura baino txikiagoa izango.

Kontratatutako enpresak kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei benetan aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen zaion informazio guztia eman beharko du.

Klausula honetan jasotako betebeharrok kontratuaren baldintza berezitzat hartzen dira, eta horiek ez betetzea larritzat hartuko da, eta Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 211.f) artikuluan aurreikusitako kontratu-suntsiarazpena ekarriko du.

## **17. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE**

Kontratatutako enpresak bere gain hartu beharko du kontratua betetzean egin beharreko operazioen ondorioz sortutako kalteen eta galeren erantzukizuna, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 196. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horretarako, kontratua adjudikatu aurretik, aseguru-poliza baten kopia aurkeztu beharko du, gutxienez 600.000 euroko berme-mugarekin, bai eta poliza ordaindu izanaren egiaztagiria ere; aseguru horrek estaliko ditu kontratuak berekin dakartzan arriskuak eta, bereziki, beste pertsonei eragin dakizkiekeen kalteengatiko erantzukizun zibila, betiere bere langile, enplegatu edo menpeko iraunkor nahiz noizbehinkakoen egintzengatik edo erabilitako makinaria eta ekipamenduengatik eratorritakoak badira edo adjudikazioaren xede den zerbitzua ematen den bitartean egindako lanetan sortu badira.



## 18. DATU PERTSONALAK

Enpresa adjudikazio-hartzaleak kontratatutako zerbitzuekin lotuta jakin ditzakeen datu guztiak konfidentzialak direla ulertzten da, eta horien nortasuna eta sekretua gorde beharko dira. Enpresa adjudikazio-hartzaleak kalte-ordaina eman beharko die Udalari eta eragindako pertsonei, isiltasun profesionalaren betebeharra urratzeagatik sortutako kalte-galerengatik.

Enpresa adjudikazio-hartzaleak kontratua betetzeko beharrezkoa izan daitezkeen izaera pertsonaleko datuak erabiltzeko, honako xedapen hauei jarraitu beharko die: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua (Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzkoa) eta 3/2108 Lege Organikoa (abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko), eta baita hori garatuko duen araudia ere.

Enpresa adjudikazio-hartzaleak ezin izango ditu aplikatu edo erabili kontratuaren ondorioz lortzen dituen datu pertsonalak kontratuaren agertzen denaz bestelako helburu baterako, ezta beste pertsonei laga ere, ezta datuak gordetzeko izanda ere.

Behin kontratu-prestazioa bete ondoren, tratatutako datu pertsonalak Udalari eman beharko zaizkio.

## 19. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Herri onurako arrazoia direla-eta, Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearren 203. artikuluan ezarritako kasuetan eta moduan.

Zerbitzua behar duten obren kopuria handitu behar bada edo Bergarako Udalaren borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik zenbatetsitako kopuria handitu behar bada, gehieneko aurrekontu estimatua gehienez ere % 20 aldatu ahal izango da.

## 20. HARRERA ETA BERME-EPEA

Lanak entregatzeko, Kontratuaren Erregelamendu Orokorreko 203. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio. Horrenbestez, Zerbitzu Teknikoek lanak ikuskatu ondoren, horiek hartzea proposatuko da edo, bestela, kontratu-hartzaileari idatziz argibide zehatzak emango zaizkio antzemandako akatsak epe zehatz batean konpon ditzan.

Kontratu-xedea den prestazioa bukatu eta gehienez ere 15 eguneko epean, lanaren harrera-egintza formal eta positiboa egingo da, zerbitzuaren behin betiko txostena emanet.

Era berean, HILABETE BATEKO berme-epea ezartzen da –harrera formalaren egunetik hasita–, Sektore Publikoko Kontratuaren Legean eta aipatutako Erregelamendu Orokorean adierazitako ondorioetarako.

Berme-epetan horretan kontratu-hartzailea izango da erantzulea egiten diren lan edo zerbitzuetan akats edo ikusiezinezko akatsak agertzen badira.

Berme-epetan horretan Administrazioak eragozpenik jartzen ez badu, epea amaitutakoan kontratu-hartzailearen erantzukizuna amaitutzat joko da.

## **21. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK, BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU**

### **A) PRESTAZIOEN EXEKUZIO PARTZIALARI BURUZ EDO PRESTAZIOAK AKATSEZ BETETZEARI BURUZ**

Kontratistak, berari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuaren zehaztutako prestazioen exekuzio partziala bete ez badu edo prestazioak akatsez bete baditu, Administrazioak aukeran izango du, berdin-berdin, edo kontratua amaitzea, berme-galerarekin, edo eguneroko zigorrak ezartzea, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,60 euroko proportzioan, eta eragindako kalte-galerak ere ordaindu beharko dira.

### **B) KONTRATUAREN BALDINTZA BEREZIAK EZ BETETZEA**

Kontratistak, berari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuaren baldintza bereziak betetzen ez baditu, Administrazioak aukeran izango du, berdin-berdin, edo kontratua amaitzea, berme-galerarekin, edo eguneroko zigorrak ezartzea, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 1 euroko proportzioan, eta eragindako kalte-galerak ere ordaindu beharko dira.

## **22. AZPIKONTRATAZIOA**

Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 215. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta eskatutako baldintzak betetzearen menpe beti, adjudikazio-hartzaileak beste batzuekin hitzartu ahal izango du kontratua zati batean egitea baina gehienez ere adjudikazio-prezioaren % 40ra arte eta betiere kontratua gauzatzeko azpiegitura nahikoa ez duenean.

Azpikontratuak egin ahal izango dira baldin eta kontrataturako enpresak egin beharreko azpikontratua idatziz jakinarazten badio Administrazioari, bertan adierazita kontratuko zein aldek egingo dituen azpikontratistak.

Gainera, enpresa kontratistak administrazioari jakinarazi beharko dizkio azpikontratistaren nortasuna, harremanetarako datuak eta zein den haren legezko ordezkaria, bai eta egingo duen kontratuaren zatia gauzatzeko gaitasuna duela egiaztatzen duen agiria ere.



Nolanahi ere, enpresa adjudikazio-hartzaileak bere gain hartuko du udalaren aurrean kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa, baita enpresa azpikontratistek gizarte- edo lan-arloko betebeharraak betetzearena barne, halakorik balego.

### **23. KONTRATUAREN LAGAPENA (ZESIOA)**

Kontratua beste bat lagatzeko aukera dago, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 214. artikuluan ezarritako muga eta betekizunekin.

### **24. KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEKO ARRAZOIAK**

Kontratua amaitzeko arrazoia, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 211. eta 313. artikuluetan ezarritakoez gain, honako hauek ere izango dira:

- a) Baldintza Teknikoen Pleguan adierazitako betebeharraak ez betetzea.
- b) Adjudikazio-hartzailearen ezintasun teknikoa lehiaketaren xede diren prestazioak betetzeko.

Kontratua suntsiarazi egingo da, bermea galdua edo ez, alde baten edo bestearen alde zuzenbidez bidezkoak diren kalte-ordainei kalterik egin gabe.

### **25. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK**

Administrazioari dagokio kontratua interpretatzea, kontratuaren sor daitezkeen zalantzak ebaaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, betiere Sektore Publikoko Kontratuaren Legean eta lege horren Erregelamendu Orokorean ezarritako mugen barruan eta haien baldintza eta ondorioei eutsiz.

### **26. HIZKUNTZA-BETEKIZUNAK**

Enpresa adjudikazio-hartzaileak Bergarako Udalaren Euskararen Erabilera Planean jasotako erabilera-irizpideen arabera emango du zerbitzua, bai ahozko jardunean, bai idatzizkoan.

Kontratu horrek hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidea nahitaez bete behar duenez, zerbitzu-hizkuntzak euskara eta gaztelania izango dira.

Udaleko ohiko lan-hizkuntza euskara da; beraz, kontratatutako enpresaren eta udalaren arteko administrazio-harremanak euskaraz egingo dira normalean, ahozkoak zein idatzizkoak.

Kontratuari atxikitako langileen hizkuntza-gaitasuna

Bergarako Udalarekin eta hirugarrenenkin harremanak dituzten heinean, kontratatutako enpresako langileek Bergarako Udalak euskarazko baldintzei dagokienez dituen baldintza berak bermatu beharko dituzte.

Horregatik, informazio publikoko txostenak edo testuak idazteaz arduratu ohi diren langileek, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan hartuta, C1 euskara-maila (Europako erreferentzia-esparruaren arabera) edo 3. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea izan beharko dute.

Eskaintza onuragarriena deklaratu eta hurrengo 10 egun baliodunen barruan, zerbitzua emango duten pertsonek eskatutako hizkuntza-gaitasuna dutela egiaztatu beharko du enpresak.

Hizkuntza-gaitasuna honela egiaztatu ahal izango da:

- Zerbitzua eman behar duen pertsonak edo pertsonek eskatutako hizkuntza-gaitasuna dutela egiaztatzen duen agiria aurkeztea, edo
- Bergarako Udalak erabakitako proba egitea.

Era berean, kontratatutako pertsona berriak sartzen badira eta ondoren zerbitzua ematen badute, euskara-gaitasuna ere egiaztatu beharko dute.

Enpresa esleipendunak agiri honetan zehaztutako zerbitzua emateko proposatutako pertsonek ez baditzte atal honetako baldintzak betetzen, enpresa esleipendunak beste pertsona batzuk aurkeztu beharko ditu zerbitzua emateko. Azken horiei ere dagozkien probak egingo zaizkie, eta horiek ere gainditzen ez baditzte, Udalak kontratua deuseztatu ahal izango du. Kasu horretan, enpresak ez du inolako kalte-ordainik eskatzeko eskubiderik izango, eta, gainera, ezarritako behin betiko fidantza galduko du.

#### Euskarazko idazkiak

Kontratatutako enpresak zerbitzua emateko erabilitako euskarazko testuak zuzenak eta egokiak direla bermatu beharko du. Hori ziurtatzeko, hedapen handiko testuak edo behin eta berriz erabiltzen direnak Udaleko Euskara Zerbitzura bidali ahal izango dira, zuzen daudela egiaztatzeko, eta maila desegokia bada, enpresari eskatuko zaio bere kontura zuzentzeko.

Jendaurreko informazioko testuak idazten badira (errotauak, kartelak, oharrak...), euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira, eta, azken kasu horretan, euskarari emango zaio lehentasuna, bai kokapenarekin, bai neurriekin. Aukera dagoenean, euskarazko mezua piktogramarekin erabiliko da.

## **27. HIZKUNTZA-BALDINTZEN BETETZE-MAILAREN JARRAIPENA**

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 62. eta 210. artikuluekin bat etorriz:



Kontratazioaz arduratzen den udal-sailak jarraipena egingo du ezarritako hizkuntza-baldintzak betetzen diren ikusteko, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari.

Kontratuaren arduradunak kontratua betetzen dela ikuskatuko du, hizkuntza-eskakizunak behar bezala betetzen direla egiaztatuko du, eta horretarako behar diren erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu, ez bakarrik kontratua amaitzean, baita modu jarraituan ere, atzematen diren akatsak zuzendu ahal izateko jarraipen-euskarri espezifikoen bidez.

## **28. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK**

Kontratua gauzatzeko honako baldintza berezi hauek ezartzen dira, eta horiek ez betetzeak zigorak ezartzea ekarriko du, salbu eta berariaz zehazten direnak funtsezko kontratu-betebeharren izaerarekin, kontratua suntsiarazteko arrazoitzat jotzeko.

1. Lan-arloko, gizarte-segurantzako eta laneko segurtasun eta osasuneko betearazpen-baldintza bereziak:

